

Biharko Euskal Hezkuntza

Biharko Euskal Hezkuntza Sistema gaurtik eraikitzen hasteko ekarpena egin dute ikastolek: ENDEKALOGOA.



Udaletxeko Mugikortasun Saileretik eskaera

Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailak ohartarazi digu keza asko jasotzen ari direla auzotarren partetik, goizetan haurrak ikastolara autoz ekartzean espaloietan sortzen ditugun arazoak direla eta. Hortaz, guztioi arduraz jokatzeko deia egiten dizuegu.



Paper birziklatua egiten

HH 2koak paper birziklatua egitera animatu gara, adin hauetan jolas libreak eta estimulu sentsorialak duen garrantzia kontutan hartuta eta honekin batera naturara hurbilpena egin nahian. Primeran pasa dugu urarekin, paperarekin eta loretxoekin jolasean!



4 urtekoak goizpasa

Atzo 4 urteko talde bat Uliako Lore Baratzetara joan ginen goizpasa. Gune eta jolas ezberdinetan aritzeko aukera izan genuen, eta animalia batzuk ere ikusi genituen! Txango ederra benetan!



Buztina lantzen

LH5eko ikasleok buztinarekin primerako artelanak sortu ditugu. Euskal artistak lantzen ari gara, eta Txillidaren estiloa eredu, eskulturen munduan murgildu gara!



DBH2 metadiziplinarra

Ohiko saio eta ordutegiak alde batera utzi, eta aste honetan DBH 2ko ikasleek "Herria hobetu dezagun" diziplinarteko egoerari aurre egin behar izan diogu, taldeka. Proiektu honetan, ebaluazioan zehar Gizarten, Matematikan, Naturren eta Euskararen ikasitakoa aplikatu behar izan dugu, egoerak planteatzen duen eskakizunari erantzuteko. Gela bakoitzean Atarian jartzeko proiektu bana aukeratu dugu:

[DBH 2A](#)

[DBH 2B](#)

[DBH 2C.](#)



Lilatoia GKAn

Emakumeen egunaren harira, Lilatoia tradizio bihurtzen ari da Donostian. Aurten ezingo da ohiko moduan egin, baina izena eman duten emakumeek lasterketa bakarka edo burbuila txikitan egiteko aukera dute. Zurriola ikastolako lanbide heziketako ikasleek gaur ospatu dugu emakumearen aldeko lasterketa.



Martxoaren 8a

Astelehenean dugu martxoaren 8a, eta Ikastolan hasiak gara giroa berotzen: Ikastolako eremua apaintzen ari gara, eta astelehenerako dinamikak ere prest ditugu. Musika eta Dantza Eskolako kideek ere bideo eder bat prestatu digute. Moreak har dezala du Ikastola!



Errigora: Plateretik Baratzera

Urrian egin genuen moduan, berriro ere animatu nahi zaituztegu Errigora egitasmoan parte hartzera. Martxoaren 24a bitartean duzue aukera Plateretik Baratzera kanpainan parte hartzeko, eta saskiak ikastolan jasotzeko aukera jarri dugu zuen eskura. [\(Info+\)](#).



OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. HHA-B (Ainere-Miren) goizpasa martxoak 10. HH5C-D (Amaia-ixiar) goizpasa martxoak 12.
- **LH5:** AGIFESen (Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarte) eskutik sentsibilizazio saioa. Martxoak 11.
- **LH5:** San Telmo Museora bisita. Martxoak 12.
- **DBH1 eta 3:** 2. ebaluazioko buletinak Alexian. Martxoak 10.
- **DBH2:** Heziketa afektibo-sexuala. Martxoak 9 (A eta C).
- **DBH3:** Sexu heziketa. Martxoak 10.
- **Emakumeen Eguna:** Groseko [Haurtxokoa](#) eta Groseko Gaztelekua.

